

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL LEGEAREN GAKOAK

PARTE-HARTZEA:

- Legea egiteko prozesuaren ezaugarria izan da **eragile instituzional** eta **sozialekin** izandako **parte-hartze** eta **elkarrizketa** maila zabala.
- Horri esker, euskal lankidetzaren eta elkartasunaren **ikuspegi partekatua** eraiki ahal izan da, eta **adostasun zabala** lortu ahal izan dira legearen edukiei dagokionez.

ELKARTASUNA:

- Lankidetzaren eta elkartasun-ekimenen **konpromiso solidarioa** berresten du, bai eta **pertsona guztien duintasuna** bermatzeko politika horien **botere eraldatzailea** ere.

ERANTZUNKIDETASUNA:

- Legeak dei egiten die **euskal gizarte** osoari eta bere **erakundeei** beren **gaitasunak** eta **baliabideak**, **giza garapenaren**, **justizia globalaren**, **demokraziaren**, **giza eskubideen** eta **bakearen** zerbitzura jar ditzaten, **hegoaldeko** eragileekin batera.
- Bereziki aitortzen du **GGKE**en ibilbidea eta ezagutza.

Legearen helburuak

- **Giza garapena** eta **jasangarritasuna** bultzatzea, eta pobrezia eta bazterketa eragiten duten **egiturazko kausak eraldatzea**.
- **Desparekotasunen aurka borrokatzea**, eta **giza eskubideen** eta **justizia globalaren** alde.
- **Gizarte askeak**, **demokratikoak**, **baketsuak** eta **inklusiboak** sustatzea.
- **Balio-aldaketa** sustatzea eta **gizarte-mobilizazioa** bultzatzea justizia globalaren eta giza garapenaren alde.
- **Euskadiko** eta **Hegoaldeko gizarte erakundeak** indartzea.

KOHERENTZIA

- **Esparru komun** bat ezartzen du **euskal sektore publiko osorako**, hiru mailetan.
- **Erakunde bakoitzaren barruko** politiken **koherentzia** zaintzen du, bai eta erakunde horien eta gainerako eragileen arteko **koordinazioa** eta **osagarritasuna** ere.
- Politiken koherentziaren bidez, administrazioek beren politikek Euskadin ez ezik, **beste herrialde** batzuetan eta **etorkizuneko belaunaldietan** duten **eragina** ere aztertuko dute

ERAGINKORTASUNA

- Lankidetzeta eta elkartasun ekimenen **berezitasunak** aitortzen ditu. Horregatik, **arauen** garapena eta **kudeaketa arinagoa** eta **sinplifikatuagoa** ahalbidetuko duten arau eta prozedura zehatzak garatzen ditu.

KONPROMISOA

- Politika garatzeko behar adina funtsez hornitzeko **konpromiso solidarioa** finkatzen du. Horretarako, **Eusko Jaurlaritzak urtero bideratuko** du, gutxienez, **gutzizko gastuaren % 0,7**.

Egitura

- Legeak **bost kapitulu, hemeretzi artikulua, xedapen gehigarri bat, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen** ditu.
 - **I. kapitulua:** lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikoaren xedea eta helburua eta aplikazio-esparrua zehazten da.
 - **II. kapitulua:** euskal lankidetzaren publikoaren antolamendua.
 - **III. kapitulua:** euskal lankidetzaren plangintza eta jarduera-modalitateak.
 - **IV. kapitulua:** baliabideak eta gaitasunak.
 - **V. kapitulua:** ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa eta komunikazio mekanismoak.
 - Laguntzei eta dirulaguntzei buruzko **xedapen gehigarri bakarra**.
 - **Hiru xedapen iraunkor:** Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea eta eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia.
 - **Xedapen indargabetzailea bat.**
 - Hiru azken xedapen: eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, arau bidez garatzeko ahalmena ematea eta indarrean jartzea.